



## “AUKERAK” GIZARTERATZEAREN EUSKAL AGENTZIA SORTZEKO LEGEAREN AURREPROIEKTUAREN MEMORIA EKONOMIKOA.

Memoria hau egiteko kontuan hartu da Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia kontrolari eta kontabilitateari buruzko Legearen 26. artikuluan xedatutakoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zena. Izan ere, Legegintzako Dekretuak arau- edo xedapen-proiektuen gainean egindako ekonomia- eta araudi-kontrolaren helburua eta edukia arautzen ditu, eta kontrol horrek barnean hartzen ditu honako hauek: kredituaren edo finantzaketaren existentzia eta egokitasuna egiaztatzea; arauak edo xedapenak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiaren araubidean, ondarean, kontabilitatean, kontratazioan, berezko zergetan, zorpetzean edo bermeak emateko unean-unean indarrean dagoen araubidean duen eragina; kontrolpeko arauak edo xedapenak hizpide dituen ekonomia- eta aurrekontu-programen helburu eta ekintzetan duen eragina eta, hala badagokio, egokitasuna; proposatutako arau edo xedapenaren finantza-arrazoizkotasuna, modu kuantifikagarrian, eta jarduera ekonomikoan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren berezko gaietan gertatzen diren beste alderdi batzuk.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 2/11 Zirkularrak hiru motatan sailkatzen ditu memoria horiek, eta eredu bat zehazten du, arauak autonomia-erkidegoko administrazio publikoko organoak edo erakundeak sortzea, aldatzea, berriz egituratzea edo/eta ezabatzea dakarrenearako. (464/1995 Dekretua, 42.1, 42.3 eta 43.2 artikulua).

Aukerak agentzia sortzeko lege-aurreproiektuaren memoria ekonomikoa egiteko erabilitako eredia lehen adierazitakoa da, eta bertan jasotzen dira, zabalago edo murriztuago, eredian adierazitako epigrafe guzti-guztiak, bat izan ezik: ukitutako helburuak, ekintzak eta adierazleak identifikatzen dituen aurrekontu-memoria eta erabilitako giza baliabideen eta ukitutako baliabide materialen aurreikuspena.

### I. OINARRIAK

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak, 10.14 eta 12. artikuluetan, EAERI ematen dizkio espetxeetako erakunde eta establezimenduen antolaketa, araubide eta funtzionamenduaren gaineko eskumenak eta espetxeen gaineko legeria orokorra betearazteko eskumenak. Bada, eskumen horiek betez, bigarren xedapen iragankorrean aurreikusitako Batzorde Mistoak osoko bilkura egin zuen 2021eko maiatzaren 10ean eta, bertan, erabaki zuen Estatuko Administrazioaren

eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzea, espetxe-arloko Estatuaren legeria betearazteari dagokionez. B) eta G) apartatuek honako hau xedatzen dute:

**B) Autonomia-erkidegoak bere gain hartzen dituen egitekoak eta zerbitzuak**

1. Estatuak ezarritako legeen esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen zaizkio bere lurralde-eremuan dauden espetxeak ekonomikoki eta administratiboki kudeatu, zuzendu, gainbegiratu, antolatu eta ikuskatzeko egitekoak.

2. Horren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoak, bere eskumen-eremuan, egiteko eta zerbitzu hauek hartuko ditu bere gain:

...

c) Espetxe-eremuko prestazioak kudeatzea, arlo hauetan: hezkuntza, gizarte-ekintza, espetxe-lana, lanerako prestakuntza, gizarteratzea eta laneratzea, kultura- eta kirol-jarduerak sustatzea, gobernuz kanpoko antolakundeen esku-hartzeko programak koordinatzea, droga-mendekotasunak prebenitu eta tratatzeko eta errehabilitatzeko jarduerak.

...

**G) Eskualdatutako egitekoak eta zerbitzuak finantzatzeko araubidea**

...

2. Espetxe Lanera eta Enplegurako Prestakuntzara bideratzen diren eta zuzeneko kudeaketa duten erreserba-kredituen tratamendua akordio osagarri baten bidez arautuko da. Kreditu horiek Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioaren gastu-aurrekontuetan eta Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioari atxikitako Estatu Enplegu Zerbitzu Publikoan daude jasota.

Era berean, goian adierazitako eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzeko erabakiaren 4. akordio osagarriak honako hau xedatzen du hirugarren atalean:

“Espetxe-arloko Estatu legeria betearazteari buruz Estatu Administrazioak dituen eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko akordioaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen ditu Espetxe Lana eta Prestakuntza Estatu erakundeak erkidego horretan zituen eskumenak.

Beraz, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren eta Estatu Enplegu Zerbitzu Publikoaren aurrekontuetan Espetxe Lana eta Enplegurako Prestakuntza estatu-erakundeari emango zaion tratamendua azaroaren 5eko 1441/2010 Errege Dekretuan aurreikusitako

*eskualdatzeari lotutako estatu-mailako urteko kostuaren zatitzat hartuko da.”*

Halaber, Eskualdatzeko Akordioaren 5. akordio osagarriak zehazten du zer epetan jarraituko duen Espetxe Lana eta Enplegurako Prestakuntza zuzenbide publikoko estatu-erakundeak ekoizpen-zerbitzu eta -jarduera jakin batzuk kudeatzen espetxeetako produkzio-tailerretan, eta honako hau gehitzen du 3. apartatuan:

*3- Espetxeetako erakunde eta establezimenduen antolaketa, araubide eta funtzionamenduari buruz dituen eskumenak baliatuz, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako espetxeetako presoei lan produktiboa eta enplegurako prestakuntza emateko eginkizunak bere gain hartzen dituen Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeak, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, espetxeetako eta prestakuntzarako laneko zuzenbide publikoko estatu-erakundeak dituen eskubide eta betebeharretan subrogatuko da. Beraz, data horretatik aurrera, bere gain hartuko du Estatuko erakundeak duen posizioa besteren konturako produkzio-jarduerak egiten dituzten presoen lan-harreman berezian, baldin eta jarduera horiek Estatuko erakunde horrek kudeatzen dituen espetxeetan egiten badira.*

Akordio horiekin bat etorriz, “AUKERAK” GIZARTERATZEAREN EUSKAL AGENTZIA sortzeko legearen aurreproiektuak honako eginkizun hauek aitortzen dizkio erakunde sortu berriari:

*3.- AUKERAKen helburua izango da Euskadiko espetxeetan barneratuta dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzea erraztea. Bere helburuak lortzeko, honako eginkizun hauek dagozkio AUKERAKi:*

- a) Espetxeetako produkzio-lana eta horren ordainsaria antolatzea, produkzio-tailerrak, nekazaritza-ustiategiak eta agintzen zaizkien espetxeetako edo gizarteratze-zentroetako zerbitzu osagarriak kudeatuz.*
- b) Industria, merkataritza edo antzeko jarduerak egitea, eta, oro har, espetxe-lanarekin zerikusia duten edo administrazio publikoek agintzen dizkioten eragiketa guztiak egitea, dagozkion helburuak betetzeko.*
- c) Askatasunaz gabetutako pertsonen lanbide-heziketa sustatzea.*
- d) Kondenaren azken fasean edo erdi askatasuneko erregimenean enplegurako orientazioa sustatzea, eta beste erakunde edo entitate batzuekin lankidetzan aritzea pertsona horien gizarteratze- eta laneratze-ibilbideari jarraipena emateko.*

- e) *Bere xedea kontuan hartuta, ordenamendu juridikoak esleitzen dizkien beste batzuk.*

## II. “AUKERAK” AGENTZIA SORTZEAK DAKARTZAN USTIAPEN-GASTUEN ETA -DIRU-SARREREN ZENBAKETA

“AUKERAK” agentzia sortzean, ustiapen-gastu eta -diru-sarrera batzuk daude aurreproiektuaren testuko artikuluko bakarraren 3. apartatuan jasotzen diren eginkizunak gauzatzeari lotuta; izan ere, honako hauek gauzatzeko dituzte gutxienez: EInk Espetxe Lana eta Enplegurako Prestakuntza (ELEP) estatuko erakundeari egindako enkarguen indarraldia amaitzean AUKERAKek jasotzen dituen ekoizpen-tailerrak, Justizia Sailburuordetzak 2021eko urriaren 1etik aurrera (eginkizun eta zerbitzuak eskualdatzeko eraginkortasun-data) hasitako enplegurako prestakuntza- eta orientazio-ekintzak, baldin eta agentzia berria martxan hasten denean funtzionamendu-fasean badaude, eta Agentziak abian jartzen dituen tailer eta ekintza berriak.

Zehatzago, honako hauek:

### A) Ekoizpen-tailerrak:

- Ekonomatua eta kafetegia
- Janariak (elikadura)
- Mantentze-lanak
- Errazioen banaketa
- Jarduera osagarriak: Garbiketa, garbitegia, lorezaintza, liburutegia, etab.
- Okindegia
- Kanpoko enpresekin hitzartutako tailerrak
- Tailer berriak

### B) Prestakuntza-jarduerak

### C) Enplegurako orientazio-ekintzak

AUKERAKek, beraz, bi motatako jarduerak ditu: batetik, produktiboa, eta bestetik, prestakuntzari eta orientazioari lotutakoa. Bi modalitate horietan sortzen dira diru-sarrerak eta gastuak, tailer gutxi batzuetan izan ezik (liburutegia, lorezaintza, etab), orain arte horietan ez baita ezer fakturatu.

ELEPk EAEko espetxeetan 2020ko ekitaldian kudeatu dituen ekoizpen-tailerren ustiapen-kontuak aztertu dira eta datu hauek atera dira: 150.000 € inguruko emaitza positiboa, eta, guztira, 4.169.246,05 € (hornidurak eta eskulan

produktiboa) ekoizpen-jarduerari datxezkion gastuak. 2021erako aurreikuspena mantentzen da.

Dena den, kontuan izan behar da ekoizpen-tailerrei buruzko ustiapen-kontuetan ez dela jasotzen ELEP erakundearen egitura-gastuei dagokien egozpenik. Orduan, AUKERAK erakunde berriak sortuko dituen ustiapen-gastuak eta -diru-sarrerak kalkulatzeko, arestian aipatutakoez gainera, langileen gastuak eta AUKERAKen egiturari egozteko moduko gainerako ustiapen-gastuak ere sartu beharko lirateke, hala nola errentamenduak, instalazioen eta makinaren mantentze-lanak, energiaren, uraren eta gasaren hornidurak, komunikazioak, osasunaren zaintza, istripu-asegurua, euskarri informatikoa (EJIE) eta garbiketa-produktuen, jantzien, material suntsikorraren eta bestelakoen erosketa.

Presoentzako prestakuntza- eta orientazio-ekintzak antolatzekeo gastuak 258.306 € ingurukoak izango lirateke.

Finantzaketari dagokionez, aipatutako artikulua 6. apartatuak ustiapen-gastuak finantzatzeko iturri hauek ezartzen ditu:

- Urtero Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorraren kontura esleitzen zaizkion kopuruak.
- Dirulaguntzak.
- Bere ondarean sartutako ondasun eta eskubideen ondoriozko diru-sarrerak eta bere jardueren ondoriozko diru-sarrerak (arruntak eta apartekoak).
- Eta atxikitzen zaion beste edozein baliabide.

EINK eskatuta edo kanpoko enprekin sinatutako ekoizpen-akordioen ondorioz ELEPk EAeko espetxeetan antolatutako tailerren ekoizpen-jardueraren ondoriozko diru-sarrerak 3.595.000 eurokoak izan ziren 2020an. 2021ean diru-sarrera horiei eustea aurreikusi da, doikuntza txiki batzuekin, baina ekitaldian izandako izakinen gehikuntza ere izango da urte horretan.

Era berean, urtero 455.780 euroko diru-sarrerak aurreikusten dira Lanbidek Aukerak agentziari prestakuntza-ekintzetarako eta enplegu-orientaziorako egindako enkargu moduan.

Hala ere, eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzeak 2021eko urriaren 1etik aurrera izango baditu ere ondorioak, 2021eko aurrekontuei dagokienez, honako hau hartu behar da kontuan:

- 1- ELEPk ekonomatu- eta kafetegi-zerbitzua emango du EAeko espetxeetan, ekoizpen-tailerraren modalitatean, eta gainerako ekoizpen-jarduerak ekoizpen-tailerraren formularen bidez kudeatuko ditu 2021eko abenduaren 31ra arte; beraz, tailer horiek sortutako gastuak eta diru-sarrerak erakunde horri egotziko zaizkio (5. akordio osagarria).
- 2- 2021eko urriaren 1etik aurrera, presoan elikadurari, elikadura-errazioak banatzeari, espetheen mantentze-lanei, jarduera osagarriei eta higieneloteen hornidurari buruzko kudeaketa-enkarguak ELEPk gauzatuko ditu 2021eko abenduaren 31ra arte; horrez gain, enkargu horien ondoriozko betebeharrak ekonomikoak Euskal Autonomia Erkidegoak hartuko ditu bere gain aldi horretan (2. akordio osagarria), zehazki, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak. Horrenbestez, betebeharrak horiei aurre egiteko behar diren kredituak sail honen 2021eko aurrekontuetan sartuko dira.
- 3- 2022tik aurrera, Aukerak agentziaren salmenta propioen diru-sarreraren zenbatekoa honako hauen bidez handituko da: a) Sailak egindako enkarguak betetzeko erositako gaien prezioak hornitutako kopuruaren murrizketaren arabera (Estatua versus EAE) handituko diren aurreikuspena, b) ekoizpen-tailerrek egindako lan guztien fakturazioa, eta c) ekoizpen-tailer berrien antolaketa.

Azkenik, orain arte EAeko espetxeetan ezarri diren ekoizpen-tailer gehienak autokontsumora bideratuta daude, baina 2022rako proiektatzen den merkatu-azterketa batek bezero berriak identifikatzen lagunduko du eta produktua gehiago dibertsifikatzea ahalbidetuko du; horrela, gainera, EAeko espetxeetako presoan kopuruak autokontsumoak baimendutakoa baino eskala handiagoan ekoizteko aukera emango du, eta, beraz, epe ertainean (2-3 urte) ekoizpen-jardueratik eratorritako diru-sarrerak handitzea aurreikusten da.

### **III. “AUKERAK” AGENTZIA SORTZEAK DAKARTZAN INBERTSIOEN ETA KAPITAL-BALIABIDEEN ZENBAKETA**

6. apartatuan jasotakoaren arabera, AUKERAKek honako baliabide ekonomiko hauek izango ditu, helburuak betetzeko:

- a) *Entearen hasierako zuzkidura, eta entearen gizarte-funtseko gehikuntzak, halakorik bada.*

*b) Urtero Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorraren kontura ezartzen diren diru-izendapenak.*

*c) Dirulaguntzak, beste administrazio publiko batzuen ekarpenak, dohaintzak, jaraunspenak eta legatuak, bere alde halakorik ematen bada.*

*d) Bere ondarearen barruko ondasun eta eskubideetatik eratorritako diru-sarrerak, eta bere jarduerak gauzatzetik eratorritako ohiko eta ezohiko diru-sarrerak.*

*e) Esleitu ahal zaion beste edozein baliabide.*

Proiektatu den Gizarteratzearen Euskal Agentzia berriaren jarduerak eskatzen du ibilgetuaren inbertsioak egitea erakunde berriaren egoitza izango den higiezia erosteko; izan ere, jarduera alokatutako espazioetan hastea aurreikusi da (Gasteizko seminarioa) baina, gero, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari atxikitako erakunde instituzionaletako bati lokal bat erosteko asmoa dago, 1.500.000 € ingururekin, eta horrek ustiapen-gastuak murriztea ekarriko du.

Era berean, aplikazio informatikoei lotuta, ibilgetu ukiezineko inbertsioak egin beharko dira berehala.

Ekoizpen-jarduera garatzeko, halaber, inbertsioak egin beharko dira, alde batetik, ekoizpen-tailerretako instalazioak eta ekipamenduak hobetzeko eta, hala badagokio, berritzeko; izan ere, gaur egun daudenetako asko zaharkituta daude. Denbora igaro ahala gauzak zahartzen joan dira. Kasu honetan, gainera, pertsona askok erabiltzen dituzten instalazioak eta lanabesak eta, orduan, hondatu egiten dira. Espetxeetan zigorra betetzen duten pertsonen espetxeek eman behar dizkieten funtsezko zerbitzuen funtzionamendurako beharrezkoa den ekoizpen-jarduera bat denez, guztiak hobetzea edo ordeztea planteatzen da; beraz, baztertu egiten da horiek kentzea.

Bestalde, espetxeetatik eskala handiagoan ekoitzi eta merkaturatu daitezkeen produktu berriak garatzeko, Agentzia berriaren ekoizpen-instalazioetan inbertsioak egin beharko dira, ezartzen diren ekoizpen-lerro berrien arabera. Ezarpen horrek bideragarritasunari lotutako aurretiazko azterlanak beharko dituzenez, ez da aurreikusten berehalako ordainketarik lerro berri horiei dagokienez.

Era berean, Aukerak agentzia lan egiten hasten denean, berehalako inbertsioak egin beharko dira ekipamendu informatikoan.

Ibilgetu materialeko inbertsioen urteko zenbatekoa ezartzean, Aukerak agentziako zuzendaritza-organoak eratu ondoren onartzen diren ekoizpen-planak eta enplegurako prestakuntza- eta orientazio-planak hartuko dira kontuan (urteko eta/edo urte anitzeko planak). Plan horien zenbatespena egingo da 2022rako aurrekontu orokorrak egiteko. Horregatik, une honetan, Eskualdatzeko Akordioa sinatu eta hiru astera, oraindik ez dago zehaztuta ELEPren instalazioen inbentarioa; Aukerak agentziak egin beharko dituen inbertsioen hasierako zenbatespena bakarrik egin daiteke.

Nolanahi ere, inbertsio horiek kupoaren atxikipenetik datozen aurrekontu-baliabideetara egokitu ahal izango dira, eta, ezinbestean, gaur egungo errendimendua hobetuko dute (hala adierazten dute instalazio modernoek dituzten zentroek), bai eta instalazioak eta makinak konpontzeko ustiapen-gastuak murriztuko ere, gaur egun ez baitira urtean 120.000,00 eurotik jaisten.

Atal honetan ez dira zenbatuko espetxeetan prestakuntzarako eta enplegu-orientaziorako instalazioek beharko dituzten hobekuntzengatik eskatutako inbertsioak, horiek espetxeen ibilgetuaren parte direlako eta, beraz, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren aurrekontuetan sartuko direlako.

#### **IV. FINANTZAKETA**

Espetxeen erakunde eta establezimenduen antolaketa, erregimen eta funtzionamenduari buruzko eskumenak eskualdatzeari lotutako estatu-mailako urteko kostua 1.120.933.225 eurokoa izango da 2021eko ekitaldian; beraz, EAEk urtean 69.949.977 euro atxikiko ditu bere gain hartutako funtzio eta zerbitzuak finantzatzeko (kupoaren % 6,24 murriztuta). Zenbateko horrek barne hartuko du Justizia Sailburuordetzak 2021eko urriaren 1etik aurrera urte osorako bereganatutako eskumen berrien arabera zuzenean garatuko dituen zerbitzuei dagokien kostua, baita AUKERAKen jardueraren ondoriozko urteko kostua ere.

2021eko ekitaldiari dagozkion baliabideak (17.487.494,20 €) Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren aurrekontuetan sartuko dira, eta ohiko gastuetarako eta kapital-gastuetarako transferentziak ez dira igoko ekitaldi honetan; izan ere, Aukerak agentziak ez du jarduera 2021eko azaroaren 1a baino lehenago hastea aurreikusten. Horrez gain, erakunde berria 2022ko urtarrilaren 1ean erabat martxan egon dadin, beharrezkoa izango da gastu- eta inbertsio-prozedura asko hastea Aukerak sortzeko eta arautzeko xedapenak onartu aurretik; ondorioz, kargu horien hasierako egozpena kreditu berriak sartzeko sortuko den sailaren berriazko programari egingo zaio.



## V. USTIAPENAREN, KAPITALAREN ETA EMANDAKO ZERBITZUEN ERRENDIMENDUAREN LABURPENA

Proiektuaren fase honetan, zaila da ustiapen-taularen eta kapitalaren zenbatespen zehatza egitea, proiektatutako erakundeari esleitutako zuzkiduren eta baliabideen errendimendua adierazteko, hainbat arrazoirengatik. Lehenengoa, proiektu berria sortzeko arrazoia da, hau da, espetze-arloko Estatuaren legeria betearazteari buruzko Estatuko Administrazioaren eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko akordioa. Beraz, ez da erakunde berria sortzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren erakunde instituzionalek diagnostikoa egin ondoren alde zuzenetik gauzatzen zituzten zerbitzuak modu eraginkorragoan emateko diseinatutako proiektua sortzea; Administrazio honek orain arte inoiz erabili ez duen eskumen berri bat bere gain hartzea da kontua, eta eskumen horren eragin ekonomikoak, beraz, orain arte erabilitakoak baino askoz sakonagoa eta zehatzagoa den azterketa bat eskatzen du.

Horrez gain, ez dago ELEPko tailerretan erabilitako ibilgetu materialaren inbentariarik, ez dakigu tipologia, kopurua eta antzintasun- eta balorazio-ezaugarriak.

Hala ere, AUKERAK EAEko espetxeetan dauden pertsonak gizarteratzeko erakunde gisa egoteak berekin dakar, nahitaez, Autonomia Estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoari aitortzen dion eskumen hori baliatzea, eta, beraz, ez da haren sorreraren errentagarritasunaren arabera. Gainera, ezin da interes ekonomikoak lortzearen mende geratu, Espetxeen gaineko irailaren 26ko 1/979 Lege Organiko Orokorra garatzeko onartutako araudian xedatutakoaren arabera (190/1996 Errege Dekretua, otsailaren 9koa, Espetxeetako Erregelamendua onartzen duena eta 782/2001 Errege Dekretua, uztailaren 6koa, espetxeetako lantegietan lan-jarduerak burutzen dituzten zigortuen lan-harremanaren izaera berezia eta gizartearen mesederako lanen zigorrak betetzen dituztenen Gizarte Segurantzaren babesa arautzen dituen). Hala eta guztiz ere, erakunde horren kudeaketak errentagarritasun egokia lortu behar du bete beharreko helburuetarako, eta errentagarritasun horrek, esan bezala, gaur egun egin gabe dagoen azterlan sakon bat beharko du.

Beraz, erakunde berri honen sorrerak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan berehala izango duen eragin ekonomikoaren gaineko hurbilketa bat edukitzea beharrezkotzat jotzen denez, Aukerak agentziaren 2021 eta 2022 ekitaldietarako jardueraren ustiapenari eta kapitalari buruzko laburpen-taula hau egin da, memoria honi erantsita txertatzen diren aurrekontu-aurreikuspenen banakapenaren arabera:

<b>2021</b>			
<b>USTIAPEN AURREKONTUA</b>			
<b>GASTUAK</b>		<b>SARRERAK</b>	
III. LANGILEEN GASTUAK:	246.055,51	VI. JASO BEHARREKO DIRULAGUNTZAK:	848.396,51
VI. USTIAPENAREN BESTE GASTU BATZUK:	582.341,00		
VII. EMAN BEHARREKO DIRULAGUNTZAK:	20.000,00		
<b>Ustiapen-gastuak, guztira:</b>	<b>848.396,51</b>	<b>Ustiapenaren diru-sarrerak, guztira:</b>	<b>848.396,51</b>
<b>KAPITAL-AURREKONTUA</b>			
<b>INBERTSIOAK</b>		<b>FINANTZAKETA</b>	
II. INB. UKIEZ., MAT. ETA BESTELAKOETAN:	129.500,00	II. KAPITAL-TRANSFERENTZIA:	129.500,00
<b>Inbertsioak, guztira:</b>	<b>129.500,00</b>	<b>Kapitalaren diru-sarrerak, guztira:</b>	<b>129.500,00</b>

<b>2022</b>			
<b>USTIAPEN AURREKONTUA</b>			
<b>GASTUAK</b>		<b>SARRERAK</b>	
III. LANGILEEN GASTUAK:	3.889.845,45	III. SALMENTENGATIKO SARRERAK:	6.313.280,60
VI. USTIAPENAREN BESTE GASTU BATZUK:	5.390.866,00	VI. JASO BEHARREKO DIRULAGUNTZAK:	3.067.430,85
VII. EMAN BEHARREKO DIRULAGUNTZAK:	100.000,00		
<b>Ustiapen-gastuak, guztira:</b>	<b>9.380.711,45</b>	<b>Ustiapenaren diru-sarrerak, guztira:</b>	<b>9.380.711,45</b>
<b>KAPITAL-AURREKONTUA</b>			
<b>INBERTSIOAK</b>		<b>FINANTZAKETA</b>	
INB. UKIEZ., MAT. ETA BESTELAKOETAN:	2.135.113,00	II. KAPITAL-TRANSFERENTZIA:	2.135.113,00
<b>Inbertsioak, guztira:</b>	<b>2.135.113,00</b>	<b>Kapitalaren diru-sarrerak, guztira:</b>	<b>2.135.113,00</b>

Datu esanguratsuak:

- AUKERAKek 2022an egin beharreko jarduera 6.313.280,60 eurotan zenbatetsi zen, eta ustiapen-gastuak 9.380.711,45 eurotan. Hots, jarduera horren % 32 diruz lagundu beharko da gastu arruntetarako dirulaguntzen bidez (batez ere, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarenak, baita, neurri batean, Europar Batasunarenak ere, Aukerak bitarteko erakunde bihurtzen bada).
- AUKERAKera atxiki beharreko langileen gastuak, presoen ordainsariak eta kotizazioak barne, ustiapen-gastu guztien % 40 izango lirateke.
- Aurkeztutako ustiapen-kontuek agerian uzten dute ustiapenaren emaitzak nabarmen hobetzen direla ekoizpen-instalazioak hobetzen diren heinean; izan ere, instalazio modernoek (Zaballa) emaitza oso positiboak ematen dituzte, instalazio zaharretan (Martutene) antolatutako tailerrek uzten duten tarte txikiaren aurrean. Datu horrek agerian uzten du etorkizunean espetxeetako ekoizpen-instalazioei dagokienez adostu daitezkeen inbertsioek emaitza positiboak ekar ditzaketela, proiektatutako agentzia berriaren egiturazko gastuei diru-sarrera propioekin aurre egiten laguntzeko.

Azkenik, adierazi behar da etorkizunean AUKERAKek garatuko dituen ekoizpen-ekintzen eta prestakuntza-ekintzen errentagarritasuna neurtu beharko dela, batez ere, etorkizun hurbilean xede horretarako zehaztuko diren prestakuntza-eta gizarteratze-helburuak lortzen dituzten pertsonen dagokienez.

## **VI. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO OGASUN NAGUSIAREN BEREZKO GAJETAN ERAGINA DUTEN ALDERDIAK IDENTIFIKATZEA**

Nortasun juridiko propioa eta diru-sarrerak sortzen dituen merkatuko ekoizpen-jarduera dituen zuzenbide pribatuko erakunde publiko berri baten xedapen sortzailea denez, izapidetzen hasi den lege-aurreproiektuak eragina izango du EAeko Ogasun Nagusiaren ondare-araubidean, aurrekontuak egiteko eta kudeatzeko prozesuetan, bai eta indarrean dauden kontrol- eta kontabilitate-sistemetan ere.

Ez da aurreikusten AUKERAKek zerga-ahalmena izan behar duenik.

## VII. PROPOSATUTAKO XEDAPENA JASOTZEN DUEN EKONOMIA-ETA AURREKONTU-PROGRAMAREN DESKRIBAPENA

Proposatutako xedapena 421 programan txertatuko litzateke: Aukerak.

## VIII.- EKONOMIA- ETA AURREKONTU-ERAGINA ADMINISTRAZIOAN, BESTE ADMINISTRAZIO BATZUETAN ETA EKONOMIAN, ETA ENPRESAREN ERAGINA.

### a) Eragina EAEko Administrazioan eta bere aurrekontuetan.

AUKERAK agentziari esleitutako eskuduntzak EAEk orain arte bereganatu ez dituen eskumenen bitarteko eta zerbitzuen eskualdatzearen barruan sartzen dira. Beraz, eskualdatzeak markatzen du hasieran aurrekontu-eragina, dagokion aurrekontu-aldaketa egin behar baita eskualdatzeari buruzko dekretua argitaratu eta 20 eguneko epean. Horretarako, berriazko programa berri bat sortu behar da, eskualdatzearen eraginkortasun-datatik (urriaren 1etik) ekitaldia amaitu arte bereganatutako eskumenaren diru-sarreraren eta gastuen egoera-orriak estaltzeko.

AUKERAK agentziaren sorrerak berekin ekarriko du bere jarduerak hasi baino lehen onartzea, aurrekontu-ekitaldiaren hasierarekin bat ez badator, erakunde publikoaren ustiapen- eta kapital-aurrekontuak eta 2021eko ekitaldiko behin-behineko finantza-egoerak. Horrek eragina izango du sail nagusiaren barruan hasiera batean ezartzen den aurrekontu-programan.

Era berean, zehaztu behar da espetxe-arloko enplegurako prestakuntzaren finantzaketa-iturrietako bat SEPetik zetorrela, eta eskualdatzeko akordioetan xedatutakoarekin bat etorriz, LANBIDEtik etorriko dela, prestakuntza hori behar bezala kualifikatu eta ziurtapena ziurtatzeko.

### b) Eragina EAEko beste administrazio publiko batzuetan.

AUKERAK sortzeak ez die eragiten beste erakunde-maila batzuei, hala nola foru-aldundiei edo udalei.

### c) Eragina herritarrengan edo enpresa pribatuetan.

AUKERAK sortzeak ez du eragin zuzenik izango herritarrengan.

Baina AUKERAK agentzia sortzeak eragin positiboa izango du askatasunik ez duten pertsonengan; izan ere, haren helburua da prestakuntza- eta lan-ibilbideak eskaintzea, kondena bete ondoren berriro gizarteratu eta laneratu ahal izateko.

Zigortuak erkidegoan berriro integratzeak eragin positiboa du ekonomian, delituak berriz egitea eta hari lotutako kostu sozialak eta ekonomikoak murrizten laguntzen baitu.

Enpresa txiki edo ertainean duen eraginari dagokionez, AUKERAK agentziaren sorrerak ez du eragin esanguratsurik.

Espetxe-tailerren ondoriozko produkzio-lana ez da merkatuko lehia-faktorea. Indarrean dagoen araudiak ez du ahalbidetzen espetxe-lana interes ekonomikoak lortzera bideratzea, eta ekoizpen-tailerren errealitatea honako hauek ditu oinarritzat: zentroen funtzionamenduari laguntzeko zereginak edo jantzigintza errazeko lan eta produktuak, merkatuan abantailaz lehiatzen ez diren trebakuntza handirik behar ez dutenean. Beraz, kanpoko enpresen lankidetzak ez da abantaila lehiakorra haientzat, eta ez dituzte ordeztu edo kentzen kanpoko lanpostuak lan-baldintza txarragoekin.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 25a

Sin.: Miren Karmele Arias Martínez  
ZERBITZU ZUZENDARIA

746 Aukerak

USTIAPEN AURREKONTUA  
PRESUPUESTO DE EXPLOTACION

Euro / Euros

GASTUAK GASTOS		PARTIDA PARTIDA	KONTUA CUENTA	EPIGRAFEA EPIGRAFE
<b>I. PERTSONAL-GASTUAK GASTOS DE PERSONAL</b>				<b>246.055</b>
1.	SOLDATAK, LANSARIAK ETA ANTZEKOAK SUELDOS, SALARIOS Y ASIMILADOS			184.725
640	<b>Soldatak Sueldos y salarios</b>		<b>184.725</b>	
	6401 Zuzendaritza-kideen ordainsariak (156/2016 Dekretua) Retribuciones del personal directivo (Decreto 156/2016)		18.515	
	6402 Funtzionarioen eta estatutupeko langileen ordainsariak Retribuciones de funcionarios y personal estatutario		166.210	
2.	KARGA SOZIALAK ETA BESTE BATZUK CARGAS SOCIALES Y OTROS			61.330
642	<b>Enpresaren kargurako Gizarte Segurantza Seguridad Social a cargo de la empresa</b>		<b>57.634</b>	
643	<b>Ekarpen definituko sistemetako epe luzeko lansariak Retribuciones a largo plazo mediante sistemas de aportación definida</b>		<b>3.696</b>	
<b>II. FUNTZIONAMENDU-GASTUAK GASTOS DE FUNCIONAMIENTO</b>				<b>582.341</b>
2.	KANPOKO ZERBITZUAK SERVICIOS EXTERIORES			582.341
621	<b>Errentamenduak eta kanonak Arrendamientos y cánones</b>		<b>56.835</b>	
	6210 Lurra eta ondasun naturalen errentamenduak Arrendamientos de terrenos y bienes naturales		41.835	
	1 Aukerak. Hasierako egoitza Gasteizko seminarioan. Aukerak. Sede inicial en Seminario de Vitoria-Gasteiz.	41.835		
	6216 Informazio prozesuetako ekipoen errentamenduak Arrendamientos de equipos para procesos de información		15.000	
622	<b>Konponketak eta kontserbazioa Reparaciones y conservación</b>		<b>39.000</b>	
	6224 Makineria eta tresneria Maquinaria y utillaje		20.000	
	6225 Instalazio teknikoa eta bestelako instalazioak Instalaciones técnicas y otras instalaciones		15.000	
	6229 Bestelako ibilgetu materiala Otro inmovilizado material		4.000	
	1 Garraio-elementuak. Elementos de transporte.	4.000		
624	<b>Garraioak Transportes</b>		<b>4.000</b>	
626	<b>Banku-zerbitzuak eta antzekoak Servicios bancarios y similares</b>		<b>1.000</b>	
627	<b>Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak Publicidad, propaganda y relaciones públicas</b>		<b>101.500</b>	
	6270 Publizitatea eta propaganda Publicidad y propaganda		100.000	
	6271 Harreman publikoak Relaciones públicas		1.500	
628	<b>Hornigaiak Suministros</b>		<b>15.000</b>	
	6289 Bestelako hornidurak Otros suministros		15.000	
	1 Jantziak, uniformeak eta arropa zuria. Vestuario, uniformes y lencería.	12.000		
	2 Produktu farmazeutikoak eta hemoderibatuenak. Productos farmacéuticos y hemoderivados.	500		
	3 Tresna eta tresna txiki sanitarioak. Instrumental y pequeño utillaje sanitario.	500		
	4 Beste hornidura batzuk. Otros suministros.	2.000		
629	<b>Bestelako zerbitzuak Otros servicios</b>		<b>365.006</b>	

Euro / Euros

GASTUAK GASTOS	PARTIDA PARTIDA	KONTUA CUENTA	EPIGRAFEA EPIGRAFE
